Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: D3F0-LAK9-99U3-YUQ7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

beharko dira.

e) Jarduera egiteko kontratatzen diren langileen gastuak. Hala ere, ezin dira langileen gastuetan sartu erakunde edo zentroen zuzendaritza batzordeetako edo kontseiluetako kide legez egindako jarduerek eragindako gastuak. Gastuok soilik sar daitezke baldin eta kide horrek lan-kontratua badu eta beharrezkoa eta nahikoa den titulazioak dirulaguntzaren xedeak berezko dituen jarduerak egiteko gaitzen badu.

542 eta 545 programetako edozein jardueratan, elikadura-gastuak soilik egozten badira, eta ez badira jotzen irakasleei edo hizlariei espezietan egindako ordainketatzat, jolas-jardueren programako jardueratzat joko dira.

Bulegoko materialari dagokionez, diruz lagundu daitekeen gastutzat hartu ahal izango da hiru programetan eragindako gastua (hau da, kultura-jardueren eta garapen pertsonaleko jardueren programan, jolas-jardueren programan eta jarduera solidario eta komunitarioen programan), baldin eta beharrezkoa bada eta proiektu nahiz jardueraren ohiko garapenari badagokio.

Txangoak, mendi-ibilaldiak eta ospakizunak honela bakarrik justifikatu ahal izango dira: garraio-gastuekin, menuekin edo hornidurarekin, sarrerekin eta gidekin.

2. Ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko edozein zergalditan jasotako dirulaguntzen itzulketak, ez eta atzeratutako edo zor diren gastuen ordainketak ere.

3. Ez dira diruz laguntzeko jardueratzat joko udalek, mankomunitateek eta gainerako entitate lokalek edo erakunde publiko zein pribatuek antolatu eta gestionatzen dituztenak.

4. Ez dira diruz laguntzeko moduko jardueratzat hartuko honako jarduera hauekin lotutako gastuak: podologia, ile-apainketa, tentsioa hartzea, janaria etxez etxe banatzea eta elkartekideentzako antzeko gainerako zerbitzuak, zozketak, elkartekideei emaniko loteriak eta opariak, saskiak edo janari-loteak ematea; horrez gainera, zuzendaritza-batzordeko kideei

d) Deberán ser ejecutados durante el año de la convocatoria.

e) Los gastos del personal contratado para la realización de la actividad. No obstante, no podrán incluirse como gastos de personal los originados por las actividades realizadas en calidad de miembros de las juntas directivas o consejos de dirección de las entidades o centros, a no ser que se tenga contrato laboral y capacitación (titulación necesaria y suficiente) para la realización de las labores específicas del objeto de la subvención.

En cualquiera de las actividades de los programas 542 y 545 en los que se imputen únicamente gastos de alimentación que no sean considerados pagos en especies a profesorado o ponentes, se considerarán actividades del programa recreativo.

El material de oficina podrá considerarse gasto subvencionable el derivado de la realización del programa de actividades culturales y de desarrollo personal, del programa de actividades recreativas y del programa de actividades solidarias-comunitarias en la medida en que sea necesario y responda al normal desarrollo del proyecto o actividad.

Las actividades de excursiones, senderismo y celebraciones podrán justificarse únicamente con gastos de transporte, menús o avituallamientos, entradas y guías

2. No se considerarán gastos subvencionables las devoluciones de las subvenciones recibidas correspondiente a cualquier periodo impositivo, ni los pagos de gastos retrasados o debidos.

3. No serán subvencionables las actividades organizadas y/o gestionadas por ayuntamientos, mancomunidades y demás entidades locales u organismos públicos o privados.

4. No se considerarán actividades subvencionables ni se aceptarán los gastos aparejados a las siguientes: Podología, peluquería, toma de tensión, reparto de comida a domicilio y demás servicios similares para las personas asociadas, rifas, sorteos, entrega de loterías y regalos a personas asociadas, entrega de cestas o lotes de comida; Y, además, las actividades recreativas dirigidas

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: D3F0-LAK9-99U3-YUQ7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

soilik zuzendutako jolas-jarduerak; ez eta emariak, dohaintzak, babesak eta dohainik emandako beste edozein ekarpen ekonomiko.

exclusivamente a miembros de la junta directiva; así como los donativos, donaciones, apadrinamientos y cualesquiera otras aportaciones económicas a título gratuito.

5. Ezin dira diruz lagundu higiezinak erosteko maileguen finantza-gastuak eta horien amortizazioa, ez eta zeharkako zergak ere, baldin eta zergok berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.

5. No podrán ser objeto de subvención los gastos financieros y la amortización de préstamos destinados a la adquisición de inmuebles, ni los impuestos indirectos, cuando sean susceptibles de recuperación o compensación.

6. Diruz laguntzeko gastuen kostua ezingo da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

6. En ningún caso el costo de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

7. Dirulaguntza ezin izango da erabili elkartetik kanpoko beste erakundeek antolatutako jarduerak edo matrikulak ordaintzeko.

7. No será posible destinar la subvención al pago de matrículas o actividades organizadas por entes ajenos a la asociación.

8. Lehiaketa eta txapelketetan, eskudirutako sarien gastua ez da justifikatuko.

8. No se justificará el gasto con premios en metálico en campeonatos y concursos.

9. Bateragarria da, batetik, foru-dekretu honetan arautzen diren dirulaguntzen xede diren jarduerak egitea eta, bestetik, helburu bera betetzeko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik (nazio mailakoak zein nazioarte mailakoak) dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideak jasotzea.

9. Las subvenciones reguladas en este decreto foral, serán compatibles con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales.

10. Foru-dekretu honen babesean emandako dirulaguntzen zenbatekoa ezin da inola ere izan diruz lagundutako jardueraren edo programaren kostua baino handiagoa, ez bera bakarrik ez eta beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek, naziokoek zein nazioartekoek, emandako beste dirulaguntza eta laguntzekin batera ere. Kostua gaindituz gero, itzuli egin beharko da dirulaguntza gainditzen duen kopurua.

10. El importe de las subvenciones concedidas al amparo del presente decreto foral en ningún caso podrá, aisladamente o en concurrencia con subvenciones y ayudas otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, superar el coste de la actividad o programas objeto de la subvención. En caso de superar el coste deberán ser reintegradas las cantidades excedentes de la subvención.

7. artikulua. *Dirulaguntza emateko baremoak eta irizpideak.*

Artículo 7. *Baremos y criterios de concesión de la subvención.*

Dirulaguntzen eskabideek 100 puntu jasoko dituzte gehienez, honako irizpide honen arabera emanak:

Las solicitudes de subvención se puntuarán con un máximo de 100 puntos, que se distribuirán conforme al siguiente baremo:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: D3F0-LAK9-99U3-YUQ7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

PUNTUAK BANATZEKO BAREMOA, ATAL BAKOITZAREN ARABERA

## A. Bazkide kopurua

| | |
|---|---|
| Banatzeko gehieneko kopurua | 35 |
| *Bazkide kopurua* | Puntuak |
| 120 arte | 20 |
| 121 eta 250 bitartean | 25 |
| 251 eta 550 bitartean | 30 |
| 551 eta gehiago | 35 |

## B. Jardueren programak — 63

B.1.- Kultur jardueren eta garapen pertsonalekoen programa (542 kodea)

| | |
|---|---|
| Banatzeko gehieneko puntu kopurua, banakapen honen arabera: | 30 |
| *Partaide kopurua* | Puntuak |
| 60 arte | 16 |
| 61 eta 130 bitartean | 18 |
| 131 eta 200 bitartean | 24 |
| 201 eta gehiago | 30 |

B.2.- Jolas-jardueren programa (543 kodea)

| | |
|---|---|
| Banatzeko gehieneko puntu kopurua, banakapen honen arabera: | 17 |
| *Partaide kopurua* | Puntuak |
| 150 arte | 8 |
| 151 eta 300 bitartean | 10 |
| 301 eta 500 bitartean | 13 |
| 501 eta gehiago | 17 |

B.3.- Jarduera solidario eta komunitarioen programa (545 kodea)

| | |
|---|---|
| Banatzeko gehieneko kopurua | 16 |
| *Partaide kopurua* (Gehieneko puntu kopurua: 11) | Puntuak |
| 6 partaide arte | 3 |
| 7 eta 15 bitartean | 6 |
| 16 eta 50 bitartean | 10 |
| 51 eta gehiago | 16 |

| | |
|---|---|
| C. - Kideren batek parte hartzea “Bizkaia adin guztientzako lurraldea” proiektuaren talde eragileren batean | 2 |
| GEHIENEKO PUNTU KOPURUA, GUZTIRA | 100 |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: D3F0-LAK9-99U3-YUQ7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BAREMO DE REPARTO DE PUNTOS SEGÚN CADA APARTADO:

## A. Número de personas socias

**Número máximo de puntos a repartir**, según el desglose siguiente: 35

| *Número de personas socias* | Puntos |
|---|---|
| Hasta 120 | 20 |
| Entre 121 y 250 | 25 |
| Entre 251 y 550 | 30 |
| 551 y más | 35 |

## B. Programas de actividades 63

B.1.- Programa de actividades culturales y de desarrollo personal (código 542)

Número máximo de puntos a repartir, según el desglose siguiente: 30

| *Número de participantes* | Puntos |
|---|---|
| Hasta 60 | 16 |
| Entre 61 y 130 | 18 |
| Entre 131 y 200 | 24 |
| 201 y más | 30 |

B.2.- Programa de actividades recreativas (código 543)

Número máximo de puntos a repartir, según el desglose siguiente: 17

| *Número de participantes* | Puntos |
|---|---|
| Hasta 150 | 8 |
| Entre 151 y 300 | 10 |
| Entre 301y 500 | 13 |
| 501 y más | 17 |

B.3.- Programa de actividades solidarias-comunitarias (código 545)

Número máximo de puntos a repartir 16

| *) Número de participantes* | Puntos |
|---|---|
| Hasta 6 participantes | 3 |
| Entre 7 y 15 | 6 |
| Entre 16 y 50 | 10 |
| 51 y más | 16 |

## C.- Participación de alguno de los miembros en un Equipo Motor de Bizkaia un territorio para todas las edades 2

MÁXIMOS PUNTOS TOTALES 100

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: D3F0-LAK9-99U3-YUQ7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Baremoaren A puntuan, entitateko bazkide-kopuruagatik emandako puntuazioa 4 tartetan ezarrita dago.

Entitate eskatzailearen bazkidetzat hartuko dira 2024ko abenduaren 31n «Bazkideen Erregistro Liburuan» inskribatuta daudenak.

B puntuan, honela banatuko dira puntuak:

B.1 Kultur jardueren eta garapen pertsonaleko jardueren programa (kodea: 0542).

B.2 Jolas jardueren programa (kodea: 0543).

B.3 Jarduera solidario eta komunitarioen programa (kodea: 0545).

Diruz lagundu daitekeen programako jarduera guztietan aurreikusitako parte-hartzearen arabera emango dira puntuak, haietariko bakoitzean 4 maila bereizita.

C puntuan, bi puntu gehiago emango zaizkie elkarteei beren eskabide guztian, baldin eta «Bizkaia adin guztientzako lurraldea» proiektuan parte hartze aktiboa duten kideak badituzte; zehazki, euren komunitate, udalerri edo mankomunitateetako talde eragileetan.

Kasu horretan, dagokion toki-erakundeak egiaztatu beharko du parte-hartze hori.

8. artikulua. *Dirulaguntzaren zenbatekoa.*

Dirulaguntzaren zenbatekoa hainbanatu egingo da, lortutako puntuen eta programa bakoitzaren aurrekontuaren arabera, eta eskabide bakoitzari gutxienez mila (1.000) euro egokituko zaizkio.

Hortik ateratzen den zenbatekoak ezingo du inola ere gainditu eskaturikoa edo aurrekontuan ezarritakoa:

a) Eskaturiko kopurua
b) Bost mila (5.000) euro.

En el punto A del baremo, la puntuación concedida por número de personas socias de la entidad está establecida en 4 rangos.

Se consideran personas socias de la entidad solicitante aquellas que estén inscritas en el "Libro de Registro de personas socias" a fecha 31 de diciembre de 2024.

En el punto B se reparten los puntos de la siguiente manera:

B.1 Programa de actividades culturales y de desarrollo personal (código 0542);

B.2 Programa de actividades recreativas (código 0543).

B.3 El programa de actividades solidarias-comunitarias (código 0545).

Los puntos se concederán en función la de participación prevista en todas las actividades del programa subvencionable, diferenciando 4 rangos en cada uno de ellos.

En el punto C. Se concederán 2 puntos adicionales a la totalidad de la solicitud a las asociaciones que tengan miembros que participen activamente en el proyecto de "Bizkaia, un territorio para todas las edades", concretamente en los equipos motores de sus comunidades / municipios / mancomunidades.

En este caso, la participación deberá ser acreditada por la entidad local que corresponda.

Artículo 8. *Importe de la subvención.*

El importe de la subvención se fijará a prorrateo, proporcionalmente a los puntos obtenidos y el presupuesto de cada programa, correspondiendo a cada solicitud como mínimo mil (1.000) euros.

En ningún caso el importe resultante podrá ser superior a la cantidad solicitada o presupuestada:

a) La cantidad solicitada
b) Cinco mil (5.000) euros.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: D3F0-LAK9-99U3-YUQ7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

9. artikulua. *Ebaluazio-batzordea.*

1. Ebaluazio-batzordea arduratuko da, kide anitzeko organo legez, eskaerak aztertu, eta haien ebazpen-proposamenak prestatzeaz. Batzordea osatzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa bete behar da. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian epaimahaien eta batzordeen osaerari buruz xedatutakoa beteko da. Foru-dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira.

2. Ebaluazio-batzordeak kide hauek izango ditu:

a) Batzordeburua:
- Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendari nagusia.

b) Batzordekideak:
- Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendariordea.
- Etxeko Arreta Zerbitzuko burua.
- Laguntzak Kudeatzeko eta Hirugarren Sektorea Sustatzeko Ataleko burua.

c) Idazkaria:
- Adinekoen arloko dirulaguntzen urteko deialdia egiteko eskumena duen kudeaketa arloko edo ataleko arduradun teknikoa edo, bestela, hango teknikariak.

10. artikulua. *Ezeste-arrazoiak.*

Honako hauek izango dira dirulaguntza-eskaera ezesteko arrazoiak::

a) Diruz laguntzeko eskatzen den dirulaguntzaren xedea ez etortzea bat dekretu honen 1. eta 2. artikuluetan ezarritakoarekin.

b) Dirulaguntza eskatzen duen entitatea ez egotea inskribaturik Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan foru-dekretu honetan esaten den

Artículo 9. *Comisión evaluadora.*

1. La comisión evaluadora será el órgano colegiado encargado del estudio y elaboración las propuestas de resolución de las solicitudes correspondientes, y en su composición se cumplirá lo establecido en el artículo 44 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de Mujeres y Hombres. Asimismo, se observará también en su composición a lo dispuesto en la Disposición Adicional Tercera sobre composición de tribunales y comisiones del Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

2. La comisión evaluadora estará compuesta por las siguientes personas:

a) Presidencia:
- Persona titular de la Dirección general de Promoción de la Autonomía Personal.

b) Vocales:
- Persona titular de la Subdirección general de Promoción de la Autonomía Personal.
- Persona titular de la Jefatura del Servicio de Atención en el Hogar
- Persona titular de la Jefatura de la Sección de Gestión de Ayudas Y Promoción Del Tercer Sector.

c) Secretaría:
- La persona responsable técnica o, en su caso, el personal técnico del área de gestión o sección competente para la realización de la convocatoria anual de subvenciones en materia de personas mayores.

Artículo 10. *Motivos de desestimación*

Serán motivos de desestimación de la solicitud de subvención los siguientes:

a) Que el objeto de la subvención solicitada no coincida con lo establecido en los artículos 1 y 2 del presente decreto.

b) Que la entidad solicitante no se encuentre inscrita en el Registro foral de Servicios sociales del Territorio Histórico de Bizkaia en los términos previstos en el presente decreto

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: D3F0-LAK9-99U3-YUQ7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

moduan eta eskabidea amaitzeko epea amaitu aurretik.
c) Dirulaguntza eskatzen duen entitatea ez egotea egunean zerga-betebeharrei, zuzenbide publikoko gainerako betebeharrei eta Gizarte Segurantzakoei dagokienez.

d) Dirulaguntza eskatzen duen entitatea ez egokitzea ondo foru-dekretu honen 3. artikuluan ezartzen zaionari.

e) Ez betetzea foru-dekretu honetan deialdi honetarako eskatutako edozein baldintza.

11. artikulua. *Ebazpena.*

1. Foru-dekretu honen 3.6 artikuluan aipatutako aurretiko ebaluazioa eginik, ebaluazio-batzordeak eskabideei buruzko azterketa, txostena eta proposamena egingo du; arloan eskumena duen atalak espedientearen instrukzioa amaitu, eta Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatuak ebazpena emango du, eskatutako dirulaguntzak onetsi edo ezesteko.

Halere, eta ebazpenak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik, Adinekoen Kontseiluari haien berri emango zaio.

2. Gehienez, sei (6) hilabeteko epea egongo da ebazpena eman eta jakinarazteko, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Epe horretan ebazpenik ematen ez bada, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsitzat joko da.

3. Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du, eta, beronen aurka, erakunde interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatuari; horretarako, hilabeteko epea izango du, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 39/2015 Legeko 123. eta 124. artikuluen arabera. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan; horretarako, bi hilabeteko epea izango du, ebazpena jakinarazten zaion egunaren

foral antes de finalizar el plazo de presentación de la solicitud.
c) Que la entidad solicitante no se halle al corriente de las obligaciones tributarias y demás de derecho público y de Seguridad Social.

d) Que la entidad solicitante no se adecúe a lo establecido en el artículo 3 del presente decreto foral.

e) Que no se cumpla cualquiera de los requisitos exigidos para esta convocatoria en el presente decreto foral.

Artículo 11. *Resolución.*

1. Realizada la preevaluación a la que se refiere el artículo 3.6 del presente decreto foral y concluida la instrucción del expediente por la sección competente, previo estudio, dictamen y propuesta de la comisión evaluadora constituida al efecto, la diputada foral del Departamento de Acción Social dictará la resolución, concediendo o denegando la subvención solicitada.

No obstante, con carácter previo a la publicación de las resoluciones en el «Boletín Oficial de Bizkaia», se dará cuenta de las mismas al Consejo de Personas Mayores.

2. El plazo máximo para dictar dicha resolución y su notificación será de seis (6) meses, contados desde la fecha de finalización del plazo para presentar solicitudes. Transcurrido este plazo sin haberse dictado la correspondiente resolución, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo.

3. Contra la resolución, que agota la vía administrativa, podrá la entidad interesada interponer recurso potestativo de reposición ante la diputada foral del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la notificación de la resolución, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 114, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o bien, interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente a la notificación, de acuerdo con los artículos 25 y 46 de la Ley

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: D3F0-LAK9-99U3-YUQ7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25. eta 46. artikuluekin bat.

29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

12. artikulua. *Ordainketa.*

Artículo 12. *Pago.*

1. Dirulaguntza ordaintzeko agindua bakarra eta aldez aurretikoa izango da, erakunde onuradunaren aldekoa; nolanahi ere, dirulaguntza emateko ebazpenean aurrez ikusi diren helburuetarako erabili behar da dirulaguntza osoa eta aurretik foru-dekretu honetan ezarritako baldintzak bete behar dira.

1. La ordenación del pago será única y con carácter anticipado a favor de la entidad beneficiaria y quedará en todo caso condicionada a la aplicación total de la cantidad concedida a los fines específicamente previstos en la resolución que la otorgue y una vez cumplidos los requisitos establecidos en el presente decreto foral.

2. Dirulaguntza hauen xede diren erakundeak nolakoak diren kontuan hartuta, eta dirulaguntzen xede eta helburua eraginkorki betetzen laguntzeko, ez da bermerik eskatuko.

2. Dado el tipo de entidades a las que se dirigen estas subvenciones y para facilitar de forma eficaz el cumplimiento de la finalidad y objeto de las mismas, no se exigirá garantía.

13. artikulua. *Dirulaguntzak aldatzea eta gutxitzea.*

Artículo 13. *Modificación y minoración de las subvenciones.*

1. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik gertatuz gero eta, edozein kasutan, beste administrazio batzuek edo nazioko zein nazioarteko bestelako erakunde publiko eta pribatuek emandako dirulaguntzaren bat lortuz gero, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, eta dirulaguntza deuseztatu edo laguntzaren zenbatekoa aldatu ahal izango da.

1. Cualquier alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, nacionales e internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la convocatoria, extinguiendo la subvención o modificando su cuantía.

2. Diruz lagundutako programak egin direla frogatzeko ezarri ziren epeak igarota ez bada egiaztatu eta justifikatu programa guztiak aurrez ikusi bezala burutu direla, edo egin eta justifikatutako gastua hitzartutako gastua (alegia, deialdia ebazteko foru-aginduan ezarririkoa) baino txikiagoa bada (betiere, bi kasuetan, laguntzen helburua eta xedea betetzat ematen direlarik), dirulaguntzaren zenbatekoa birdoitu egingo da, benetan justifikatu eta/edo burututako kostuen arabera. Horretarako, proportzionaltasun irizpidea erabiliko da, dirulaguntza emateko ezarritako irizpide eta mugei dagokienez.

2. Transcurridos los plazos establecidos para la justificación de la realización de los programas subvencionados, sin que se hubiera acreditado y justificado en su totalidad su ejecución en la forma prevista o, en el supuesto de que el gasto realizado y justificado hubiera sido inferior al coste aprobado del programa (establecido en la orden foral de resolución de la convocatoria) siempre que, en ambos supuestos, se entiendan cumplidas la finalidad y objeto de las ayudas, se procederá al reajuste de la cuantía de la subvención en función de los costes efectivamente justificados y/o ejecutados, aplicándose el criterio de proporcionalidad en relación con los criterios y límites establecidos para su otorgamiento.

14. artikulua. *Betebeharrak.*

Artículo 14. *Obligaciones.*

1. Entitate onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

1. Las entidades beneficiarias vendrán obligadas a:

a) Dirulaguntza ematea funtsatzen duen

a) Realizar la actividad o actividades que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: D3F0-LAK9-99U3-YUQ7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

jarduera edo jarduerak egitea, deialdi honetako oinarri, baldintza eta eskakizun formal eta materialen arabera, eta hori dela eta izendatu zaizkion funtsak ez erabiltzea laguntza ematea ekarri zuten xedeak ez diren beste batzuetan.

Erakunde onuradunaren betebehar pertsonala da diruz lagundutako programa egitea, eta hori ez egiteko salbuespen bakarrak oinarri arautzaile hauetan ezarririkoak izango dira, horretarako mugatzat jorik Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzei buruzko araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan finkatzen direnak.

b) Justifikatzea, foru-dekretu honen 15. artikuluan ezartzen den moduan, egin dela diruz lagundutako jarduera; justifikatzeko modua Dirulaguntzen Erregelamenduaren 57. artikuluan araututakoa izango da, hau da, "Justifikazio-kontua, gastu-frogagiriak aurkeztuta". Justifikazio horrek bi alderdi argituko ditu: batetik, gauzatu dela jarduerarako onartu zen kostu osoa, eta, bestetik, bete direla dirulaguntzarako eskabide-orrian jaso ziren baldintzak (hain zuzen ere, laguntza ematea ekarri zutenak).

c) Gizarte Ekintza Sailari jakinaraztea helburu bererako dirulaguntzarik edo bestelako laguntzarik jaso bada nazioko edo nazioarteko beste edozein administraziotatik edo erakunde publikotatik.

d) Ekintza baten finantzaketan dirulaguntzaz gain norberaren funtsak edo beste dirulaguntza zein baliabide batzuk erabili badira, justifikazio-agirian jaso behar dira beste funts horien zenbatekoa, haien jatorria eta funtsok nola aplikatu diren diruz lagundutako jardueretan.

e) Gizarte Ekintza Sailak egingo dituen egiaztapen-jarduketen pean jartzea, eta, halaber, eman diren dirulaguntzen eta laguntzen arloan Ogasun eta Finantza Sailari dagokion finantza-kontrolaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazio-prozeduren pean jartzea. Horrela, jasotako funtsen aplikazioaren frogagiriak gorde beharko ditu erakunde onuradunak, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontroleko jardueren xede

fundamentan la concesión de la subvención, de acuerdo con las bases, condiciones y requisitos formales y materiales de la presente convocatoria, sin que puedan destinarse los fondos asignados por este concepto a fines distintos a los que motivaron su concesión.

La realización de la actividad subvencionada es obligación personal de la entidad beneficiaria, sin otras excepciones que las establecidas en estas bases reguladoras, dentro de los límites fijados en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las subvenciones otorgadas por la administración foral.

b) Justificar, conforme al artículo 15 del presente decreto foral, la realización de la actividad o actividades subvencionadas, la modalidad de justificación será la recogida en el artículo 57 del Reglamento Foral de Subvenciones, esto es, la “cuenta justificativa con aportación de justificantes de gastos”, refiriéndose esta justificación tanto al total del gasto realizado como al cumplimiento de los requisitos y condiciones que se formularon en la solicitud de la subvención y que determinaron la concesión de ésta.

c) Comunicar al Departamento de Acción Social, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos nacionales o internacionales.

d) Cuando las actividades hayan sido financiadas además de con la subvención, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, reflejar en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

e) El sometimiento a las actuaciones de comprobación a efectuar por el Departamento de Acción Social y a las de control financiero que corresponden al Departamento de Hacienda y Finanzas, en relación con las subvenciones y ayudas concedidas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas. En este sentido, la entidad beneficiaria deberá conservar los documentos justificativos de la aplicación

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: D3F0-LAK9-99U3-YUQ7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

izan daitezke eta.

de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de actuaciones de comprobación y control.

f) Era berean, dirulaguntzak jasotzen dituzte erakundeek eskabidean adierazitako datuei buruzko edozein aldaketa edo inguruabarren berri eman beharko diote Gizarte Ekintza Sailari, baldin eta aldaketa edo inguruabar horrek dirulaguntza jasotzean edo dirulaguntzaren xedea den jardueran edo helburuan funtsezko eragina izan badezake.

f) Asimismo, las entidades destinatarias de las subvenciones quedan obligadas a poner en conocimiento del Departamento de Acción Social cualquier circunstancia o eventualidad relativa a los datos declarados en la solicitud que pueda afectar sustancialmente a la percepción de la subvención o, en su caso, a la ejecución de la actividad o finalidad para la que se concedió.

g) Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek Foru Aldundiak ekonomikoki parte hartu duela adierazi beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduеretan, hori seinale bidez behar bezala adieraziz.

g) Las entidades destinatarias de las subvenciones deberán hacer constar en las actividades objeto de subvención la participación económica de la Diputación Foral mediante la oportuna señalización.

h) Diruz lagundutako jardueraren inguruko jendaurreko agerpen guztietan hizkuntza ofizial biak (euskara eta gaztelania) erabiltzea.

h) Utilizar las dos lenguas oficiales, euskera y castellano, en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada.

i) Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan, herritarrei beren jardueraren berri emateko.

i) Utilizar las dos lenguas oficiales en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía.

j) Entitate onuradunak bete beharko du emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan aurreikusitakoa, salbu eta interes publikoko arrazoiek justifikatzen badute hala ez egitea (halakoan, justifikazio-txostena aurkeztu beharko du organo proposatzaileak).

j) La entidad beneficiaria deberá cumplir con lo previsto en el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la igualdad de Mujeres y Hombres, salvo que razones de interés público justifiquen la exención de estas obligaciones en cuyo caso el órgano proponente deberá presentar informe justificativo.

k) Ez erabiltzea hizkuntza eta irudi sexistarik sortzen diren agiri eta euskarrietan.

k) Realizar un uso no sexista de todo tipo de lenguaje e imágenes en los documentos y soportes que se produzcan.

l) Proiektuaren ekintza-esparru guztietan genero berdintasuna betetzen dela zaintzea.

l) Velar por el cumplimiento de la condición de igualdad de género en todos los ámbitos de actuación del proyecto.

m) Diruz lagundutako jardueraren onuradunak sexuaren arabera bereiztea, eta, beharrezkoa bada, emaitzen analisia egin, eta emakume eta gizonen artean berdintasun handiagoa lortzeko hartu beharreko neurriak ere aztertzea.

m) Realizar una desagregación por razón de sexo de las personas destinatarias de la actividad subvencionada y, en su caso, un análisis de los resultados y medidas a adoptar en el futuro para conseguir una mayor igualdad entre hombres y mujeres.

Era berean, datuak sexuaren arabera bereizi beharko dira pertsonei buruzko edozein

Así mismo, se deberá desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: D3F0-LAK9-99U3-YUQ7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

estatistikatan; hori guztia Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 24. artikuluaren babesean.

personas que se genere, todo ello al amparo del artículo 24 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

n) Dirulaguntza hau dela-eta antolatzen diren zerbitzu, ekitaldi edo jarduera guztietan oztopo arkitektonikoak eta komunikaziorako oztopoak ezabatzen laguntzea.

n) Colaborar en la eliminación de barreras arquitectónicas y de comunicación, en todos los servicios, eventos o actividades que se organicen en función de la presente subvención.

o) Erakunde onuradunak, hala badagokio, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren II. tituluan jasotako publizitate aktiboaren eskakizunak bete beharko ditu.

o) La entidad beneficiaria estará obligada en su caso, a cumplir las exigencias de publicidad activa contenidas en su Título II de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

p) Bi araudi hauek betetzea: 2016/679 (EB) Erregelamendua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) eta 3/2018 Lege Organikoa (Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa).

p) Cumplir con el Reglamento (UE) 2016/679 (Reglamento General de Protección de Datos) y la Ley Orgánica 3/2018 (Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales).

2. Gizarte Ekintza Sailak eskubidea izango du deialdian emandako dirulaguntzak eskaturiko helburuetara bideratzen direla ikuskatu eta kontrolatzeko, eta, beraz, egoki iruditzen zaizkion azterketa- eta kontrol-sistemak erabili ahal izango ditu. Horretarako, erakunde eskatzaile guztiak ikuskatu ahalko dira, baita dirulaguntzak eman aurretik ere, indarreko arautegia betetzen duten ala ez egiaztatzeko.

2. El Departamento de Acción Social se reserva la facultad de inspección y control sobre el destino y la adecuación de las subvenciones a las finalidades para las que fueron concedidas y podrá, en consecuencia, utilizar los sistemas de evaluación y control que considere oportunos. A este fin, podrán ser objeto de inspección todas las entidades solicitantes, incluso con carácter previo a la concesión de las subvenciones, de modo que pueda comprobarse su adecuación a la normativa vigente.

15. artikulua. *Justifikazioa*

Artículo 15. *Justificación*

1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 28. artikuluan xedatutakoa betetzeko, erakunde onuradunek epe hau izango dute justifikazioa egiteko obligazioa betetzeko: 2026ko urtarrilaren 2ko 00:00etik hasi eta 2026ko maiatzaren 29ko 13:30era arte.

1. En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 28 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, las entidades beneficiarias procederán a cumplir con la obligación de justificación desde las 00:00h el 2 de enero hasta las 13:30h del 29 de mayo de 2026.

2. Betebehar hori betetzat jotzeko, derrigor aurkeztu beharko da, egoitza elektronikoan, dirulaguntzaren justifikazioko kontua.

2. Esta obligación únicamente se entenderá cumplida mediante la presentación a través de la sede electrónica de la cuenta justificativa de la subvención.

Honako dokumentazio osagarri hau aurkeztu beharko da: erakundeak urtean zehar egindako

La documentación complementaria que se deberá presentar consistirá en una memoria

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: D3F0-LAK9-99U3-YUQ7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

jardueraren urteko memoria, barnean harturik zer dirulaguntza eman dieten beste entitate batzuek memorian jasoriko jarduerei.

anual de la actividad desarrollada por la entidad a lo largo del año, incluyendo los importes subvencionados de otras entidades con el destino dado a los mismos.

Oro har, gastuak egiaztatzeko, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Arauaren 6. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten fakturak erabili beharko dira.

